

STM

San Telmo Museoa

ISILTASUNAREN GARAIA Frankismoaren inguruko ibilbidea

12252n |

SAN TELMO MUSEOA

Zuloaga plaza, 1 - 20003 Donostia / San Sebastián

T. (0034) 943 481 580 F. (0034) 943 481 581 E. santelmo@donostia.eus

www.santelmomuseoa.eus



donostia
kultura



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

“ISILTASUNAREN GARAIA”

Sarrera

San Telmo Museoa Euskal Gizartearen Museoa den heinean, gure historiaren inguruan ibilbide zabala proposatzen digu, hastapenetatik XX. mendeko 80ko hamarkadaraino.

Ibilbide honen bitartez ikasleei proposatzen zaie San Telmo Museoan eskaintzen den historiaren atal zehatz bat jorratzea. Hartara, erakusketa iraunkorreko goi klaustroan egingo dugu (ikus plana 3. orrian): II. Errepublikaren aldarrikapenari dagokion atalean (“*Eskubideen lorpena*”), gero Gerra Zibilaren atala, Frankismoa (“*Isiltasunaren garaia*”), industrializazioa 50.eko hamarkadatik 80.kora arte (“*Gipuzkoako Industria Paisaia*” eta “*Krisialdia eta Industria birmoldaketa*” industriari buruzko erakustaretoan), frankismoaren azken urteak (“*Belaunaldi zaratatsua*” eta “*Oposizioa*”) eta Trantsizioa (“*Trantsizio demokratikoa*”, “*Konstituzioa eta Gernikako Estatutua*” eta “*Gizarte mugimenduak*”) ezagutu ahal izango ditugu. Urte haietako gertaerak aztertu eta beren testuinguru historikoan kokatzea da ibilbide honen helburu nagusia.

Ibilbidean zehar hainbat jarduera planteatzen dira, ikasleen parte-hartzea sustatzeko. Jarduerak honako ikur honekin identifikatzen dira: [1. ariketa](#).

Helburuak

- 1.- Garai hartako gertaerak beren testuinguru historikoan kokatzen laguntzea.
- 2.- Garai gatazkatsu haren inguruan norberak dituen ideiak kritikoki eztabaidatu eta berrikustea.
- 3.- Gaur egungo errealitateak, hein batean, oinarria gertaera horietan duela ulertaraztea.
- 4.- Historiak orainaldian duen eraginari buruzko hausnarketa sustatzea.
- 5.- Bizikidetzeta, begirunea eta ikasleen garapen pertsonala bultzatzea.

Eta, metodologiari dagokionez:

- 6.- Informazio historikoa bilatu, bildu eta sintetizatzea.
- 7.- Talde-lana sustatzea.


Hartzaileak

DBHko ikasleak

Metodologia eta iraupena

Bisita gidatua 60 minututako izango da eta tartean, ikus-entzunezkoa bat txertatua dago.

Guztira: 75 min



Aukeratutako hamabi objektuak eta guneak:

“Eskubideen lorpena”

- 1.- Errepublikaren bandera
- 2.- Estatutuaren aldeko kartela
- 3.- Emakumeen botua. Hauteskondeak
- 4.- “Xabiartxo”

Gerra Zibila

- 5.- “Vizcaínos por Dios y por España. Alistaos en el requeté”.
- 6.- Maite Medina donostiarraren argazkia eta testigantza

“Isiltasunaren garaia”

- 7.- “Errazionamendu-kartilla”

“Industrializazioa: “Gipuzkoako Industria Paisaia”

- 8.- “Sancheski”, Gurpil-ohola / skateboard

“Belaunaldi zaratatsua”

- 9.- “Seat 600”

“Oposizioa”

- 10.- Lourdes Iriondoren “Ez dok amairu” diskoa

“Trantsizio demokratikoa

- 11.- Korrika lekukoa

“Gizarte mugimenduak”

- 12.- Nuklear? Ez. Eskerrik asko.

1.- II. ERREPUBLIKAREN ALDARRIKAPENA

Ibilbidea 1930. urtean hasiko da; hain zuzen ere, urte hartan Donostian bildu ziren Espainiako alderdi politiko askoren ordezkariak, 1923az geroztik agintean zegoen Miguel Primo de Rivera militarren diktadurari aurre egiteko.

1931ko udal hauteskondeek argi utzi zuten aldaketarako nahia, errepublikazaleak nagusitu zirelarik. Hain zuzen ere, Gipuzkoako udal bat izan zen erregimen berriaren etorrera aldarrikatzen lehenena: Eibarko Udala. 1931ko apirilaren 14a zen eta Espainiako II. Errepublika sortu zen.

Hauteskunde haietan eta hurrengoetan oso markatua zen bi posizionamendu politikoren arteko aldea: batetik, karlistak, monarkiko liberalak eta oro har “eskuineko blokea”; bestetik, errepublikazaleak, sozialistak, anarkistak eta komunistak. Euskal Herrian eta Katalunian nazionalistak aintzat hartzeko moduko indar politikoa ziren. Hain zuzen, Euskal Herrian hirietan errepublikazale eta sozialistak izaten ziren nagusi, eta nazionalistak eta sozialistak.

Espainiako II. Errepublikaren garaian eskubideak lortzeko aurrerapauso handiak egin ziren; besteak beste:

- Botoa emateko eskubidea aitortu zitzaaien emakumeei.
- Dibortzioa onartu zen.
- Orduan sortu ziren ikastolak, eta autonomia estatutua lortzeko lehen urratsak egin ziren.

Hau guztia, haatik, ez zen gertatu tirabira, gatazka eta liskarrik gabe. Krisi ekonomiko globalaren baitan (1929 “krak” delakoa New Yorkeko Burtsan, eta haren ondorioz), langabezia handitu zen eta greba asko gertatu zen. Politikan, berriz, faxismoa Italian, nazismoa Alemanian, estalinismoa Sobiet Batasunean... autoritarismoen goraldia eta demokrazia parlamentarioen ahulezia gertatzen ari zen.

1. ariketa

Bila ezazu II. Errepublikaren lehen urtearen oroitzapenezko bandera. Noiz ospatu zen? Idatzi erantzuna.

1. Objektua: Errepublikaren bandera

Espainiako Bigarren Errepublikaren aldarrikapenaren lehen urtearen oroitzapenezkoa (1932)

1931. urtean EAJ alderdiak bat egin zuen alderdi karlistekin eta Lizarrako Estatutua adostu zuten; baina 1934. urtetik aurrera konstituzioaren kontrakotzat hartu zen. 1936. urtean, Jose Antonio Agirrek eta Manuel Irujok ezkerreko errepublikano-sozialistekin batera Estatutua itundu eta Euskal Herriaren aldeko autonomia-prozesuak indarberitu egin zen, Indalecio Prieto sozialistari eta Agirrerri esker. Gerra Zibilak eztanda egitean, euskal Estatutua onartzeaz zegoen.

[2. Objektua: Estatutuaren aldeko kartela](#)

“El estudiante pobre tendrá acceso y protección en la Universidad Vasca, si votáis el estatuto”

Kartela, 1933

Zabalo Ballarín, John “Txiki” (1892-1948)

1933. urteko Estatutuaren bozketarako egindako kanpainaren kartela. Berez, kanpaina honetarako gutxienez 5 kartel egin ziren: "El estudiante pobre", "¡Agur seme!, "Tu hijo soldado no saldrá del País si votas el Estatuto"; "No hemos nacido en esta tierra pero queremos vivir felices en ella. Votaremos el estatuto"; "No seas suicida: ¡VOTA EL ESTATUTO!", eta "Un Voto más...Tu Voto puede ser decisivo... ¡Vota el Estatuto!"

1931eko Konstituzioak dibortzioa eta emakumeen sufragioa onartu zituen. Emakumeek 1933. urteko hauteskundeetan lehen aldiz bozkatu ahal izan zuten. Euskal emakume batzuek, alderdi politiko ezberdinetan, papel aktiboa izan zuten gizarteko eremu ezberdinetan, hala nola, Maria de Maeztuk, Dolores Ibarrurik eta Haydée Agirrek.

[3. Objektua: Emakumeen botua. Hauteskundeak](#)

Eibar, 1933ko azaroak 5. Euskal Estatuari buruzko plebiszitua. Eibarko Udal Artxiboa, *Indalecio Ojanguren Fonda*. 13 x 18 cm.

II. Errepublikaren garaian, zenbait ikastola sortu ziren, eta 1932an Euzko Ikastola Batza sortu zen Bizkaian. Hauxe izan zen EAJ-ren ekimenez sortutako ikastola federazioa, euskarazko irakaskuntzaren sustapena bideratzeko. Haien helburua:

"*Hezkuntza euskalduna izan dadin, ez da aski hizkuntza, geografía... euskaraz erakustea.*

Aitzitik, ikastetxeko jarduera guztiak eta bakoitzak bitarteko izan behar dute, irakaskuntza oso-oso euskalduna lortzeko." (Iturria: <http://www.hikhasi.eus/artikulu/244>)

Kristatu balioek ere berebiziko garrantzia izan zuten.

[4. Objektua: "Xabierto"](#)

"Xabierto: umiei euskeraz irakurtzen erakusteko idazia", 1932

Zabalo Ballarín, John "Txiki" (1892-1948)

Lehen aldiz 1925ean argitaratutako liburua. Bere egilea Isaac (Ixaka, euskaraz idazten zuenean) López Mendizabal da. Liburuko protagonistaren bitartez -Xabierto, egilearen semea-, hainbat gauza irakasten dira: euskarazko lehen hitzak eta zenbakiak, abesti herrikoiak eta kanta aberkoiak, lehen otoitzak, e.a. Marrazkiak John Zabalorenak dira ("Txiki" bezala ezagunagoa). Honako argitalpen hau 1932. urtekoa da eta hauxe da ezagunena, geroago egin ziren argitalpenerako oinarri modura erabili zelako.

Isaac López Mendizabal pertsonaia garrantzitsua zen: historialaria, politikaria eta hiztegien eta euskara ikasteko metodoen egilea.

2.- GERRA ZIBILA

1936an, Espainiako Gerra Zibila hasi zen, militarren talde bat matxinatu ondoren, Francisco Franco buru zela. Herrialde barneko gerra izanagatik ere, eta kontuan hartutako nolako aliantzak egin zituzten atzerrian, buruz buru zeuden alde biek islatu eta iragarri egin zituzten geroxeago Europa osoan Bigarren Mundu Gerran lehertutako tentsioak. Euskal Herrian, Espainiako beste lekuetan ez bezala, Gerra Zibilak bi faktore bereizgarri izan zituen: autonomia eta erlijioa. Izaera ezberdineko katolikoaren arteko gerra izan zen; hau da, tradizionalisten (karlisten) eta nazionalisten artekoa. Horren adibide dugu 1936ko uztailan, euskal lurraldeak ongi bereizitako bi eremutan banatuta geratu zirela: Araban eta Nafarroan karlistak ziren nagusi, eta altxamendu militarrek hasiera-hasieratik izan zuen arrakasta; Gipuzkoan eta Bizkaian, berriz, EAJ eta ezkerria ziren nagusi, eta Errepublikarekin leial jarraitu zuten.

[5. Objektua: "Vizcaínos por Dios y por España. Alistaos en el requeté"](#)

Gerra Zibilean parte hartzeko dei egiteko kartelen artean, lehenetarikoa. Jendeari deialdia egiten zitzaion, Francoren babespean zeuden "Requeté" gudarostean parte hartzeko boluntario moduan. Gehienbat Euskal Herrian borrokan aritu ziren.

1936ko irailean, altxamendu militarrek Donostia eta ia Gipuzkoa osoa bereganatu zituen. **1937ko uztailaren hasieran**, Bizkaia osoa ere geratu zen frankisten kontrolpean. Agirreren gobernuak Santanderrera lekualdatu zen, eta handik Bartzelonara jo zuen.

1937ko apirilaren 26an, Alemaniako eta Italiako hegazkinek, Francoren zerbitzura, **Gernika bonbardatu** zuten. Picassok tragedia hura eta gerraren izugarrikeria islatu zituen bere koadro ospetsuan.

XIX. mendeaz geroztik euskal askatasunen ikono bihurtutako Gernika hiriaren kontrako izu-bonbardaketa bat izan zen; alegia, helburu militar edo logistikoak ez baina herritarren artean ikara zabaltzea izan zuen helburu. Suntsigarriena bai, baina ez zen zibilen aurkako bonbardaketa

bakarra. Haren eraginez, Eusko Jaurlaritzak haurrak masiboki atzerrira eramatera bultzatu zuen. Halatan, haurren bizia babestu nahi izan zen, bonbardaketa gehiagoren mehatxuen aurrean.

Ebakuazioak 1936. urtean hasi ziren arren, 1937an areagotu egin ziren, hegazkinez eraso egiteko arriskua eta hornidura-arazoak zirela eta. Britainia Handia, Frantzia, Dinamarka eta Errusiara bidali zituzten gehienbat. Haur asko behin betiko bananduak izan ziren gurasoengandik *Erbesteko haurrak*, *Gerraren haurrak* eta *Gernikako belaunaldia* izenez ezagunak dira. Hementxe dugu ebakatu zuten Maite Medina donostiarraren testigantza.

6. Objektua: Maite Medina (Donostia, 1929-) donostiarraren argazkia eta testigantza

Maite Teresa Arnedo Medinaren argazki partikularra (ezkerrean), zazpi urte zituela hamabi urteko anaiarekin eta beste milaka neska-mutilekin batera Ingalaterrara ebakatu zuten, gerra saihesteko. Gerrako haur bat izan zen, bada, eta Espainiako Gerra Zibilaren garaiko beldurrari, bonbardaketei eta jazarpenei buruzko eta Londresko erbestealdiari buruzko oroitzapenak kontatzen ditu, bertan hamar hilabeteetan egon zen eta.

Bere testigantzan dio, adibidez:

- "Larramendi kalean bizi izan nintzen sei urte bete nituen arte"

- "**Pobrezia asko zegoen baina asko laguntzen genion elkarri**"

- "Hilko ote zituzten beldurrez jende askok alde egin zuen. Gu Bilbora joan ginen."

- "Laurok etxean ginela sirena entzun genuen. Bonbak lehertu eta haietako batzuk etxea desegin ziguten. Bat pasiloan erori zen eta gela eta sukaldea baizik ez ziren geratu zutik. Ez genuen ezertxo ere ikusten (...). Zulo handi bat zegoen pasiloan eta handik atera gintuzten (...). Zazpi urte nituen eta oso beldurtuta nengoen."

- "Dena miseria zen. Nik gogoratzen dudana behintzat ikaragarria zen. Hegazkinak azaltzen zirenean denak beldurtzen ziren. Batzuei tiro egiten zieten eta hantxe uzten zituzten kalean hilik".

- "**Bilbotik Londresera eraman ninduten *La Habana* itsasontzian. Pentsa ezazu zein gogorra izan behar zuen gurasoentzat haien seme-alabak joaten ikustea. Gainontzeko anai-arrebak helduak ziren eta nire anaia eta ni eraman gintuzten. Dena umez betea zegoen eta gurasoak beraiek agurtzen. Denak negar batean. Oso tristea.**"

- "Neska gazte batzuk zaintzen gintuzten. Gu gobernatzan saiatzen zirenak asko ginen eta. Bidaia oso luzea egin zitzaidan. Ez nuen joan nahi. Nik gurasoekin geratu nahi bainuen. Itsasontziaren ondoren trenean eraman gintuzten."

- "**Hotela zirudien. Gela bakoitzean zazpina neskato geunden. Argazki honetan sei edo zazpi urte nituen. Erdiko neska ingelesa da eta bestea Donostiako, hura ere, Larramendi kalekoa. Hamar hilabete pasa nituen bertan. Gero Donostiara itzuli nintzen. Ez nuen ama ikusi eta aitak esan zidan nola soldadu batzuek kartzelara eraman zuten. Eta ikustera joan behar genuen. Hondarretara joan ginen. Hantxe zegoen ama nire anaietako batekin. Asko hitzegin izanagatik. Dendan gehiegi hitzegiten omen zuen. Politikak kontuak imajinantzen dut, gorria zela edo. Astelehenetan ama ikustera joaten nintzen eta ostiraletan berriz, anaia.**"

- "(...) *Ikustera joaten ginenean izugarri sufritzen zuen. Ez zekien irakurtzen ez eta idazten ere (...). Nire ama kartzelatik atera zenean nik hamahiru urte nituen.*"

4.- INDUSTRIALIZAZIOA

Arestian aipatu bezala, ibilbide honetan 50-60. hamarkadako Industrializazio prozesuak ere aztertuko ditugu. Museoko erakustaretoan izendapen hau eman diogu: *“Gipuzkoako Industria Paisaia” eta “Krisialdia eta Industria birmoldaketa”*.

I. INDUSTRIALIZAZIOA

Gipuzkoa eta Bizkaia oso industrializatuak zeuden XIX. mendeaz geroztik. Gerra ondoren, 50eko hamarkadan pizkunde bat eman zen, eta Bizkaiko eta Gipuzkoako industria-guneetara Espainia barneko probintzietatik etorkin ugari etorri ziren. Araba eta Nafarroan industriaren sustapena 60ko hamarkadan gertatu zen. Honen adibide dugu 1960-75 bitartean eman zen biztanleriaren igoera nabarmena: 1.440.000 biztanletatik 2.550.00 biztanletara. 1964. urtean Garapen planak abiarazi ziren. Industria sektore hainbatek diru-laguntzak jaso zituzten eta enpresek babesak jaso zuten, aduanetako muga-zergeren bitartez, esaterako. Honek Hego Euskal Herrian industriaren garapen handia ekarri zuen, Espainiako merkatu babestura begira ekoizten zen eta. Alabaina, 60ko eta 70eko hamarkadetan euskal fabrika eta tailerretan liskarrak ere nozitu ziren; adibidez, 1961ean, Beasaingo CAFen, ondorengo lan-uzteen eredu izango zen greba egin zuten. Urte haietan sortu zen CCOO sindikatua, klandestinoak, jakina: diktadura garaian Sindikatu Bertikala delakoa (langileak, enpresariak eta agintariak batzen zituena) zen legezko sindikatu bakarra. 1967an, frankismo garaiko grebarik luzeena egin zen, sei hilabetekoa, Etxebarriko Bandas enpresan.

Gipuzkoako industria sarearen ezaugarri aipagarriena aniztasuna zen. Eskualde batzuk sektore jakin batean espezializatu ziren; hala nola, metalgintzan, makina-erremintan, ehungintzan, elikagai industrian, zementogintzan, papergintzan. Fabrikak eraiki ahala, Gipuzkoako paisaia hiritartu egin zen, eta erabateko aldaketa izan zuten auzo eta herri askok; Añorgak, Pasaiak, Lasartek, Legazpik, esaterako. Hala, enpresa handi batzuen inguruan lantegiak ez ezik, auzoak sortzen ziren, eta komunitate bizitza oparoa egituratu zen, kirol jarduerak eta jarduera sozialak ere barne zituena.

Kooperatibismoa

Gipuzkoan, fenomeno adierazgarria izan zen kooperatibismoa. Enpresaren ikuspegi humanista, partaidetza eta solidaritatea izan ziren haren hiru ardatzak. Kooperatibetan, langileak enpresako bazkide ere badira, eta kapital ekarpenak egiten dituzte; hala, enplegatu eta jabe gisa dihardute, aldi berean.

Kooperatiba mugimendua Jose Maria Arizmendiarrera apaizak sortu zuen, Arrasaten, 50eko hamarkadan. Mugimendu hura laster zabaldu zen eskualde guztira, eta pisu handia du oraindik ere; horren erakusgarri da Mondragon Korporazioa, Euskadiko lehen enpresa taldea, kooperatibek osatua.

II. INDUSTRIALIZAZIOA – DESARROLLISMOA

60ko hamarkadan hainbat garapen-planek eta atzerriko laguntzek sustatuta, Euskal Herriak goraldi ekonomiko bat bizi izan zuen. Immigrazioak eta jaiotza-tasak gora egin zuten eta hazkunde demografiko handi bat gertatu zen. Hiriak handitu ziren, bizi-maila hobetu egin zen, eta garapen ekonomiko eta sozial handiko eremu bihurtu zen Euskal Herria. Araba eta Nafarroa ordura arte nekazaritza eta abeltzaintza emanak izan baziren ere, hamarkada hartan bat egin zuten industria-hedapenarekin. Enpresa berriak gehitu zitzaizkien, beraz, XIX. mendearen amaieratik nekazaritza eta elikadura industrian eta industria grafikoan ziharduten Arabako lantegi ezagunei.

8. Objektua: “Sancheski”, Gurpil-ohola edo skateboard.

Sancheski izan zen Europako marken artean lehenetarikoa Irunen. Bere izenaren jatorria hauxe da: enpresa sortu zuen jabearen abizena “Sánchez” eta “ski” hitza elkartuz.

60. hamarkada bukaeran Sanchez familia bere fabrikaren izaera aldatu eta skateboard-ak egiteko Europako lehen enpresari ekin zion. Enpresa hau 1934an sortu zen, kiroltako artikulua egin eta saltzeko. 60. hamarkadan zaila zitzairen Austriako eta Frantziako skiak egiten zituzten lantegiekin lehia ibiltzea. Hortaz, azpiegiturak aldatu eta skate-ak egiteari ekin zioten. 70. urte bukaeran lehen skate taldea sortu zuten.

4. ariketa

- Ba al zenekien 70eko hamarkadan patinean ibiltzen zirenak agintariek zigortzen zituztela? Ikusi bestela “*Monopatín*” dokumentala, Estatuan izandako monopatinaren historiaren inguruan.

- Skate-a berez, Estatu Batuetan sortu zen. Zergatik uste duzu?:

1/ Surfistek sortu zuten olatuak ez zeudenean entrenatu ahal izateko.

2/ Skian aritzen direnak asmatu zuten, oreka gordetzen ikasteko.

3/ Iraskasle batek asmatu zuen, haurren eskolarako garraioa errazteko.

70eko HAMARKADA - KRISI EKONOMIKOA

1975ean, industriaren hazkundera eten eta krisi ekonomikoa hasi zen. Krisia areagotu zuten, gainera, Francoren heriotzaren ondorengo asaldura politikoak, petrolioaren prezioaren handitzeak eta nazioarteko lehia gogorrak. Mugetan aduanen bitartez ezarritako protekzionismo frankistari eutsi ezinik, birmoldaketa latza gertatu zen: euskal enpresa asko itxi zituzten eta ondorioz, lan gatazka ugari sortu ziren. 80ko hamarkadan, biztanleria aktiboaren %25era iritsi zen langabezia. Testuinguru hura gairatu nahian, enpresa batzuek ikerketaren eta berrikuntzaren aldeko apustua egin zuten, eta apustu horren emaitza dira, besteak beste, gaur egungo industrialdeak eta teknologia-parkeak.

5. ariketa

INDUSTRIALIZAZIOKO IKUS-ENTZUNEZKOA (10 min.)

Bisitan etenaldia egingo dugu. Ikus-entzunezko honetan aipatutako informazioa kontutan izanik, osa itzazu honako hutsune hauek. Lau atal dira guztira.

1.atala

- 1945ean zer ezarri zuten martxan elikagaien kontsumoa kontrolatzeko? **Errazionamendu-kartilla.**
- 1955ean Espainia zein erakunderen baitan sartu zen? **Nazio Batuen Erakunde.**
- 1956ean Arrasaten zein mugimendu sortu zen? **Kooperatibisten mugimendua.**

2.atala

- Zer urtera arte egon ziren debekatuta antisorgailuak? **1978. urtera arte.**
- 1956an, kontsumoaren igoera zela eta, zer auto zabaldu zen Euskal Herrian? **Seat 600**
- 1950-75. urteen artean zer gertatu zen Euskal Herrian?
- **Immigrazioarengatik euskal biztanleriak gora egin zuen.**
- Industrializazioaren beherakada eman zen
- **Jaiotze-tasa handitu egin zen.**
- Zerk aldatu zuen euskal paisaia? **Auzo degradatuak eta hirigintza garapen kaotikoak.**

3.atala

- Donostian egon al zen Franco? **Bai.** Zenbat aldiz? **699**
- Nola inposatzen zuen erregimenak bere ikuspegia? **Irrati bidez eta NO-DO berri laburrak baliatuz.**
- Non aplikatzen zen zentsura? **Prentsan, irratian, zineman eta kalean.**
- Zentsura egon zen euskarazko liburu eta diskoetan? **Bai.** Hala ere, hauetako batzuk plazaratzea lortu zen? **Bai.**

4.atala

- Zer gizarte eredu sustatzen zuen Frankoren erregimenak? **Gizarte patriarkala.** Zein zen emakumearen rola? **Etxekoandre eta ama kontuetara alboratua izatea.**
- Zertarako behar zuten emakumeek senarraren baimena? **Lan egiteko, bidaiatzeko eta kontu korrante bat zabaltzeko, besteak beste.**
- Emakumeek edozein lanetan lan egin zezaketen? **Ez.** Galarazita zuten hainbat lanpostutan lan egitea? **Bai.**
- Emakumeek gizonezkoen soldata berdina al zuten? **Ez.** **Gutxiago kobratzen zuten.**
- Eta gaur egun nolakoa da emakumeen soldata?

5.- BELAUNALDI ZARATATSUA (Klaustroan)

1959tik aurrera, frankismoak alde batera utzi zuen gerraondoko ekonomia politika, autarkiari uko eginez. Horrela, kanpoko inbertsioen etorrera eta kanpo merkataritzaren liberalizazioa eman zen, zabalkunde ekonomikoa sustatzeko. Helburua zen European ematen ari zen hazkunde ekonomikoa espainiar ekonomia txertatu ahal izatea. Haren ondorioz, atzerriko inbertsioei industriaren ateak zabaldu zitzaizkien, eta Hego Euskal Herrian berrindustrializazio prozesua gauzatu zen. Hori dela eta, etorkin ugari iritsi ziren euskal lurraldeetara, eta gora egin zuen demografiak. Garapen ekonomikoa nolabaiteko modernizazioa ekarri zuen ohituren esparrura eta kontsumo-gizartearen garapena eman zen. Aldaketa hauen adibide argiak gazteengan emandako aldaketak ziren, janzkeran, adibidez, minigonak eta bikiniak. Seat etxearen 600 autoa izan zen kontsumo-gizarte berriaren ikur nagusia.

9. Objektua: "Seat 600"

Auto hau *Seiscientos*, *Pelotilla*, *Seílla* o *Seíta* izenez ere ezaguna da. 1957-73 bitartean ekoiztu zuen Seat markak. 1955. urtean aurkeztu zuten Genevako Auto Erakusketan. Lehen ekoiztutako alea Bartzelonan egin zen, 1957ko ekainaren 27an, eta Madrilgo matrikula jari zitzaion. "E" eta "D" modeloak ekoiztu zituzten. Funtsean oso antzekoak ziren; ezberdintasun nagusiak barneko horniduretan, atek irekitzeko moduan (alde batera edo bestera) eta atzeko eta aurreko argien tamainan zein aurreko apaingarrian zeuden.

6. ariketa

- Ba al zenekien 1972an sei ikaslek Afrika iparraldetik hegoaldera bidaia egin zutela? Bidai horretan 30.000 km egin zituzten eta ez zuten kotxea konpondu beharrik izan, oihanean zein basamortuetan aritu izan arren.
- 800.000 ale ekoiztu ziren eta itxaron zerrenda zegoen kotxea eskuratzeko. Ia urtebete itxaron beharra zegoen.
- Kotxe hau izendatzeko beste izenak ere erabiltzen ziren. Zein da okerra?:
- Seiscientos
- Pelotilla
- Seílla / Seíta
- Ombligo (zilborra: jende guztiak berea zeukalako)
- **Bolita**

OPOSIZIOA ETA EUSKAL KULTURA

Hirurogeiko hamarkadan, Euskal Herriak beste industrializazio-prozesu bat bizi izan zuen. Horren ondorioz, langile etorkin gehiago iritsi ziren, hazkunde demografikoa gertatu zen, eta aniztasun eta konplexutasun handiagoa zabaldu zen euskal gizartean.

Diktadura frankista ongi finkatuta zegoen, eta nazioarteko laguntza ere bazuen. Hala ere, erregimenaren kontrako oposizioa sortu zen esparru askotan euskal gizartean, hala nola, Elizan, langileen artean eta kulturaren.

Frankismoaren garaian euskal kulturak jasan zuen errepresioari erantzuteko, euskaltzaletasunak eztanda egin zuen Trantsizioan, eta, horren ondorioz, ikastolak hazi eta euskararen aldeko mugimenduak areagotu egin ziren. Azken horren barruan, euskararen aldeko hainbat ekimen egin ziren, hala nola Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokaren sorrera (1965), Euskaltzaindiaren suspertzea (euskara batuaren arauak finkatu zituen, 1968an) eta ikastolen sorkuntza.

Gaur Taldeak bestalde, abangoardia ekarri zuen euskal artera, Jorge Oteiza, Eduardo Chillida eta Nestor Basterretxea artista ospetsuen eskutik, besteak beste. Euskararen aldeko lanean, bestalde, 'Ez dok amairu' taldea izan zen eragile nagusia; talde haren emanaldiek ezinegon

politikoa adierazteko aukera ematen zuten. 1959an, ETA sortu zen, frankismoaren kontrako joeraren protagonista nagusia, Euskadin. ETAk gero eta jarrera erradikalagoa hartu zuen, eta nazionalismo tradizionalarekiko loturak hautsi, ideologia iraultzailea bere egin, eta biolentziaren bidea hartu zuen. 1968an egin zituen lehen hilketak.

10. Objektua: Lourdes Iriondoren "Ez dok amairu" diskoa

Maria Lourdes Iriondo Mujika Donostian jaio zen, 1937. urtean, eta Urnietan hil, 2005ean. Beste hainbat euskal kantarirekin batera, "Ez Dok Amairu" euskal kulturaren aldeko mugimenduaren partaide izan zen, 1965-72 bitartean, frankismo garaian.

Mugimendu honek euskal kultura berpiztearen alde lan egin zuen, eta hainbat artista, idazle eta abeslari euskaldunek osatu zuten, baita beste arte diziplinetako sortzaileek ere. Gipuzkoan sortu zen arren, eragin handia izan zuen Euskal Herri osoan. 1966-72 bitartean Frankoren diktadurak finkatutako zentsurari aurre egin zion eta euskal kulturaren alde lan handia egin zuen.

Talde honen partaide izan ziren: Benito Lertxundi, Mikel Laboa, Lourdes Iriondo, Jose Angel eta Juan Miguel Irigarai, Xabier Lete, Joxean eta Jexux Artze poeta eta txalapartariak, eta Julen Lekuona: hauetaz gain, Jorge Oteiza eta Nestor Basterretxea ere partaide izan ziren.

"Ez dok amairu" taldearen aldarrikapenak bat egin zuen kultura, politika zein gizarte mailan Katalunian (Els Setze Jutges) edo Andaluzian (Manifiesto Canción del Sur) beste taldeek egindako aldarrikapenekin.

Mugimendu honen izena Jorge Oteizak proposatu zuen, 1965ean, Resurreccion Maria Azkuek jasotako "San Martinen estatusuna" ipuin herrikoian oinarrituta.

Oteizaren ametsa zen diziplina guztiak batzea; hau da, kantua, estetika, forma, kultura eta literatura, frankismoaren eraginez euskal kultura jasaten ari zen errepresioari aurre egin eta euskal kultura berreskuratze aldera. Dena den, musikaren esparruan izan zuen mugimenduak oihartzun gehien.

Taldea 1972. urtean desegin zen, "Baga, biga, higa" ikuskizuna aurkeztu eta gero.

7. ariketa

- Ba al zenekien 2003. urteko Korrikan, 13. edizioan, talde honi omenaldi bat egin zitzaiola eta urte hartako Korrikaren kanta Mikel Laboak egin zuela?

- Lourdes Iriondoren diskoan badira hainbat kanta. Hauetako zein ez dagokio diskoari?

- Nere erria

- Askatasuna zertarako

- Lin-Pan mendian

- Ez gaude konforme

- **Gazte gara gazte**

7.- TRANTSIZIOA

1975ean, Franco hil ondoren, demokraziarako trantsizio prozesua hasi zen Espainian. Nahasmen handiko garaia izan zen. Ordura arte indarrean izandako debekuak bertan behera geratu orduko Euskadin alderdi politiko ugari sortu edo plazaratu ziren, klandestinitateak aterata.

Euskadin, Trantsizioaren ezaugarri aipagarrienak honako hauek izan ziren: gizarte mugimenduen ugaritasuna, tentsio politiko gogorrak eta Francoren kontrako eta presoan amnistiaren aldeko mobilizazioak. Testuinguru horretan, ETaren indarkeria areagotu egin zen. 1978. eta 1980. urteak izan ziren ETaren historiako odoltsuenak.

Espainian eta Euskadin erakunde demokratikoak finkatuz joan ziren pixkanaka-pixkanaka. 1979an Autonomia Estatutua onartu zenez geroztik, euskal gizartea modernizazio prozesu bizkor batean murgildu zen, eta erronka berriak sortu zitzaizkion.

[11. Objektua: Korrika lekukoa, ca. 1980](#)

Mendiburu, Remigio (1931-1990)

1980 eta 1988 bitarteko Korriketan erabilia (36 x 3,5 cm)

Korrika AEK Alfabetatzeko eta Euskalduntzeko Koordinadorak antolatzen duen Euskal Herri osoan barnako ibilaldia da, 11 egunetan gau eta egun behin ere gelditu gabe egiten dena. Ikastegietarako dirua biltzea eta oro har euskara sustatzea du helburu. Kilometrotik kilometrora lekukoa eskuz esku aldatzen da, harik eta barruan daraman mezua azken egunean irakurtzen den arte.

8. ariketa

- Zeinek egin zuen Korrikaren lehen lekukoa? **Remigio Mendiburu eskultoreak.**
- Ba al zenekien guztira sei lekuko egin zituela eta haxe dela gelditzen den bakarra? 1995. urtetik aurrera, Juan Gorriti eskultore nafarrak egindako erreplika erabiltzen da.
- Ba al zenekien Korrikaren lehenengo ediziotik erabaki zutela AEK-koek edizio bakoitzean euskararen eta irakaskuntzaren alorrean nabarmendutako norbait omentzea?

GIZARTE MUGIMENDUAK

Gizarte-mugimenduak ugaritu egin ziren Trantsizioan. Askotariko adierazpenak sortu ziren, antimilitaristak, mugimendu antinuklearra -Lemoizko zentralaren eraikuntzaren kontrako borrokaren inguruan antolatua-... Mugimendu feministak emakumeak lan-merkatuan erabat txertatzeko aukera, dibortzioa eta abortua eskatu zituen.

12. Objektua: "Nuklear? Ez. Eskerrik asko"

Nuklearrik? Ez eskerrik asko nazioartean erabiltzen den mugimendu antinuklearren ikur eta leloa da. Anne Lund ekintzaile eta ekonomia ikasle daniarrak 1975an ideia sortu zuen, 22 urte zituela, Søren Lisberg lankidearekin batera: «Atomkraft? Nej tak». Ikurra 500 txapa egiteko erabili zen lehen aldiz, 1975eko Maitzaren Lehenean. Harrez geroztik, munduko hizkuntza askotan borroka antinuklearraren alde zabalduko ikurra izan da. Protesta moduan erabiltzen bada ere, esaldiak berez ez du ezer aldarrikatzen, begirunez erantzuten den galdera bat planteatu baizik.

9. ariketa

- Ba al zenekien logotipoa sortu eta handik urte gutxira danieratik beste 45 hizkuntzatarara itzuli zela?
- 1978tik aurrera, ikurraren salmentarekin ateratako dirua, hein batean, WISE erakundearen finantzaketarako erabili izan da, hamar urteetan zehar. Erakunde horren egoitza Amsterdamen dago eta bere lana Nazioarteko Energiaren inguruan Informazioa ematean datza.
- Ba al zenekien 1978an Bizkaiko bizilagunen eta familien elkarteek aldizkari bat argitaratu zutela "Ez, ez, ez" izenburupean, Lemoizen zentral nuklearraren sorkuntza-asmoa dela eta?

Lorpenak eta erronkak

80ko hamarkadan, euskal gizartea modernizazio-prozesu bizkor batean murgildu zen, eta portaera demografikoen aldaketan, genero-rolen hurbilketan eta sekularizazioan islatu zen. Aldaketa haiek areagotu egin ziren 90eko hamarkadan.

Mende berriak erronka berriak planteatu ditu; hala nola, bakea eta giza eskubideak, garapen iraungarria, kulturartekotasuna, Europak munduan duen zeregina eta genero berdintasuna.

Museoak gai horiei buruzko eztabaida eta gogoeta sustatu nahi du; ildo horretan, bada, hitzaldiak, mahai-inguruak eta jarduerak antolatzen ditu.

Gaia lantzeko estekak

<http://www.euskomedia.org/aunamendi/ee103502/113794#21>

<http://liburutegiak.blog.euskadi.eus/eibar/tag/ii-errepublika/>

https://issuu.com/liburutegia/docs/gida_2

http://www.euskara.euskadi.eus/r59-luredir/es/contenidos/articulo/c0201/eu_d0201022/0201022.html

<http://www.euskonews.com/0062zbn/gaia6202eu.html>

<http://www.hikhasi.eus/artikulu/244>

<http://www.euskomedia.org/aunamendi/125643>

<http://www.euskomedia.org/aunamendi/125643/113829>

<http://www.euskomedia.org/aunamendi/79019/59836>

<http://www.ehu.es/ojs/index.php/HC/article/view/7504>

<http://www.euskomedia.org/bilatu?q=sindicato+vertical&partialfields=fondo%3Aau%25F1amendi>

<http://www.eitb.eus/es/audios/detalle/817765/sancheski-made-in-euskadi/>

http://audios.ak.cdn.eitb.com/multimedia/audios/2012/01/23/602088/SANCHESKI2301_20120123_120407.mp3 (22 min.)

<http://www.euskomedia.org/aunamendi/ee153855/141917>

<http://listas.eleconomista.es/autos/3695-curiosidades-sobre-el-seat-600>

<http://www.euskomedia.org/aunamendi/43522>

<http://www.euskomedia.org/bilatu?q=KORRIKA&partialfields=fondo%3Aau%25F1amendi>

<http://www.euskomedia.org/bilatu?q=lemoniz&partialfields=fondo%3Aau%25F1amendi>

<http://www.euskomedia.org/bilatu?q=antinuclear&partialfields=fondo%3Aau%25F1amendi>

<https://www.ecologistasenaccion.org/tienda/material-asociacion/143-pegatina-antinuclear-12-cm.html>